

# ARETXABALETAKO UDALEKO BARNE PLANA

2024

MURGIBE BERDINTASUN  
KONTSULTORIAK EGINDA

## AURKIBIDEA

---

SARRERA.....	2
LEGE ESPARRUA.....	3
PLANA HITZARTZEN DUTEN ALDERDIAK .....	4
LANGILE, LURRALDE ETA DENBORA EREMUA.....	5
LORTU BEHARREKO HELBURUAK .....	5
NEURRI ZEHATZEN DESKRIBAPENA, EGUTEGIA, ARDURADUNAK ETA ADIERAZLEAK.....	6
BEHARREZKO BITARTEKO ETA BALIABIDE MATERIALAK ETA GIZA BALIABIDEAK.....	11
LAN TALDE ERAGILEA .....	11
BALIABIDEAK .....	11
LAN PROGRAMA, JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA EGITEKO TRESNAK .....	11
DESADOSTASUNAK KONPONTZEKO PROZEDURA ETA ALDAKETA- PROZEDURA .....	12
I.    ERANSKINA. MARKO LEGALA. ....	13

## SARRERA

---

### **Zer da eta zertarako balio du Berdintasun Plan bat?**

Berdintasun-plana egoera-diagnostiko bat egin ondoren hartutako neurrien multzo ordenatu bat da, edozein erakundetan, kasu honetan administrazioan, emakumeen eta gizonen tratu- eta aukera-berdintasuna lortzera eta sexuagatiko diskriminazioa ezabatzea bideratuta dagoena.

Berdintasun Plana inbertsio argia da administrazioaren helburu integralak bermatzeko; izan ere, elementu estrategikoa da, administrazioan kudeaketa-modu berritzaileak sartzen dituen eta antolaketa-eraginkortasuna hobetzen duena, eta, gainera, administrazioaren irudi positiboa ematen duena. Berdintasun-politika lan-harremanen eta administrazioaren kulturaren lehentasunezko ardatzetako bat bihurtzea lortzen da.

Politika hori, administrazioaren giza kapitalaren kudeaketan modu iraunkorrean txertatuta, modu eraginkorrean bermatuko du emakumeek eta gizonek aukera berberak izatea kudeaketa horren praktika guztietan sartzeko, parte hartzeko eta irauteko.

### **Zergatik da egokia administrazio publikoan?**

Hurrengo orrietan, Euskal Administrazioen datu batzuen analisia burutzen da, genero ikuspegitik. Izan ere, lan esparru pribatuan ematen diren genero arteko desberdintasunak, administrazio publikoan ere ematen dira, eta lan harremanen esparruan genero ikuspegia txertatzeko behar bat dago.

## LEGE ESPARRUA<sup>1</sup>

---

Hainbat dira Berdintasun Planak arautzen dituzten lege eta arauak. Lehenik eta behin, Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legeak, 2015etik aipatzen du administrazio publikoek daukaten lege-betebeharra.

5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena, zazpigarren xedapen gehigarrian aipatzen da:

*“1. Administrazio publikoek tratu- eta aukera-berdintasuna errespetatu behar dute lan-eremuan, eta, helburu horrekin, neurriak hartu beharko dituzte emakumeen eta gizonen arteko edozein lan-bereizkeria saihesteko.*

*2. Aurreko paragrafoan xedatutakoari kalterik egin gabe, herri-administrazioek, legegintzaldi bakoitzaren hasieran, emakumeen eta gizonen berdintasunerako plan bat onartuko dute, nork bere eremurako. Aplikatzekoa den funtzionarioen hitzarmen kolektiboan edo lan-baldintzen akordioan garatuko da plan hori, bertan aurreikusitako baldintzetan.*

*Planak enplegu publikoan tratu- eta aukera-berdintasuna sustatzearen arloan lortu beharreko helburuak ezarriko ditu, baita helburu horiek lortzeko hartu beharreko estrategiak edo neurriak ere. Plana negoziatu eta, hala badagokio, adostu egingo da enplegatu publikoen legeko ordezkariarekin, Administrazio Publikoko negoziazio kolektiboari buruzko legerian zehazten den moduan, eta urtero ebaluatuko da. (...)”*

Era berean, eta legeak zehazten zuen bezala, Berdintasun Planen Erregistro bat sortu da, eta administrazio publikoek bertara bidali beharko dituzte beren berdintasun-planak, bai eta sexu-jazarpenaren eta sexu-arrazoiengatiko jazarpenaren biktimak babesteko protokoloak ere, herri-administrazio guztiek arlo horretan hartu beharreko neurriak hobeto ezagutu, jarraitu eta gardenago egiteko.

Bestalde, Berdintasun Planak eta bertan agertu beharrekoak zehazten duen Errege Dekretu bat dago: 901/2020 Errege Dekretua, urriaren 13koa, berdintasun-planak eta horien erregistroa arautzen dituena.

---

<sup>1</sup> Berdintasun Planak arautzen dituen legeria zabala eta sakona da, dokumentu honen lehenengo eranskinean kontuan izan beharreko legeria guztia agertzen da.

Errege Dekretu honek, Berdintasun Planetan agertu beharreko informazioa eta atalak zehazten ditu, eta hurrengoak dira:

- Administrazioa osatzen duten pertsonen kopurua sexuaren arabera
- Planaren indarraldia
- Kudeaketa, jarraipena eta ebaluazioa
- Lortu beharreko helburuak
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra bermatzeko neurriak:
  - Enplegu publikoa eta karrera profesionala
  - Bizitza pertsonala, familia eta lanaren uztartzea
  - Prestakuntza
  - Emakumeen eta gizonen presentzia orekatua hautaketa-organoetan
  - Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako prebentzioa eta jarduna

## PLANA HITZARTZEN DUTEN ALDERDIAK

---

Plan hau burutzeko negoziazio batzorde bat eratu da eta bere osieran alkatea, berdintasun teknikaria, idazkaria, berdintasun zinegotzia eta langileen ordezkariak parte hartu dute.

Pertsona hauei gaitasun eta legitimazioa aitortu zaie diagnostikoa eta Berdintasun Plana diseinatzeko eta Berdintasun Batzordearen kide izateko aukeratu dira.

Batzordearen eginkizun nagusiak hauek izan dira:

1. Diagnostiko-txostena eta berdintasun-plana egitea.
2. Berdintasun-planerako lehentasunak identifikatzea, egindako diagnostikoan oinarrituta.
3. Udalean ezarpena bultzatzea.
4. Betetze-mailaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko prozedura definitzea, aukeratutako adierazleen arabera.
5. Batzordeak aldiro biltzea erabaki du, Berdintasun Plana egiteko. Bilera bakoitzean akta jaso da.

## LANGILE, LURRALDE ETA DENBORA EREMUA

---

### Langile- eta lurralde-eremua

Plan honek barne hartzen ditu indarrean dagoen bitartean Aretxabaletako udalean lan egiten duten langile guztiak, eta bere lurralde eremua Aretxabaletako herria da.

### Denbora eremua

Plana sinatzen den egunetik 2028ko ekainera arte egongo da indarrean. Lan taldeak konpromisoa hartzen du plan berri bat negoziatzen hasteko hitzarmen honen indarraldia bukatu baino lehen.

## LORTU BEHARREKO HELBURUAK

---

Udalaren Barne Berdintasunerako Planak hiru programa nagusi landuko ditu bakoitza bere helburu eta ekintzekin.

Programak hurrengoak dira: KULTURA ETA KOMUNIKAZIO BERDINZALEAREN SUSTAPENA, UDALEKO PERTSONEN KUDEAKETA eta GENERO IKUSPEGIAREN SUSTAPENA

Honekin lotuta, hurrengo helburu espezifikoak zehazten dira programa bakoitzean:

### 1GO PROGRAMA: KULTURA ETA KOMUNIKAZIO BERDINZALEAREN SUSTAPENA

1. Lan harreman eta arreta berdinzaleak bultzatzen jarraitzea.
2. Berdintasun arloaren erreferentzialitatea sustatzea.

### 2. PROGRAMA: UDALEKO PERTSONEN KUDEAKETAN GENERO IKUSPEGIAREN SUSTAPENA

3. Emakumeak azpi-ordezkatuta dauden taldeetan parekidetasunera hurbildu.
4. Udaleko enplegu eskaintzan genero ikuspegia txertatu.
5. Udaleko kanpo kontratazioetan genero ikuspegia txertatu.
6. Errespetuzko lan ingurune osasuntsu eta arduratsua bultzatu.
7. Soldata gardentasuna bultzatu.

### 3. PROGRAMA. GENERO IKUSPEGIAREN SUSTAPENA

8. Genero ikuspegiaren inguruko prestakuntza garatu

## NEURRI ZEHATZEN DESKRIBAPENA, EGUTEGIA, ARDURADUNAK ETA ADIERAZLEAK

## PROGRAMA 1: KULTURA ETA KOMUNIKAZIO BERDINZALEAREN SUSTAPENA

HELBURUAK	EKINTZAK	ARDURADUNA	BETETZE URTEA	ADIERAZLEAK
<b>1. Lan harreman eta arreta berdinzaleak bultzatzen jarraitzea</b>	1. Koordinazio bilera orokorren bitartez berdintasun barne planaren ekimenak komunikatzea. Deskribapena: barne planaren ekintzak azaldu eta langileen ekarpenak jaso.	Idazkaritza Berdintasun taldea	24-28	Barne Planaren ekimenak zenbatetan komunikatu diren
	2. Berdintasuna lan harremanetan eta herritarrekiko arretan bultzatzeko sentsibilizazio ekintzak antolatzea udal langileen artean (elkarlana, kohesioa, komunikazioa, lidergo kolaboratzailea...) Deskribapena: kurtso ezberdinen zerrenda bat zehaztu, adostu eta bi pilula antolatu urtero.	Berdintasun taldea Komunikazioa	24-28	Urtean bi pilula Parte-hartzea sexuz Asebetetze maila sexuz
	3. Klima inkesta bat jasotzea urtero genero ikuspegiarekin Deskribapena: urtero lan giroaren inguruko inkesta bat jasotzea, genero berdintasunaren inguruko galderak dauzkana eta genero perspektiba daukana.	Berdintasun taldea Idazkaritza	25-28	Klima inkesta Betetze maila sexuz.
<b>2. Berdintasun arloko erreferentzialtasuna sustatzea</b>	4. Urtero jaso beharreko genero-adierazleen sorta bat identifikatzea. Deskribapena: hurrengo adierazleak bilduko dira sexuz: Lan postuak; mailak; kontratu berriak, sustapenak; berdintasunean formatu direnak; aniztasuna; baimenak eta lizentziak eta kanpo kontratazioa.	Berdintasuna	24-28	Genero adierazleen bilketa
	5. Planaren garapenari eta eraginari buruzko urteko memoria egitea.	Berdintasun taldea Berdintasuna	24-28	Memoriak

	<p>Deskribapena: urtero egindako ekintzak jasoko dira, bere balorazioa egingo da eta hurrengo urterako aurreikuspena jasoko da.</p>			
	<p>6. Politikariei zuzendutako gida bat egitea genero ikuspegia barne duena, barne funtzionamenduari buruz. Deskribapena: politikarien harrera erraztuko duen dokumentu bat egitea jakiteko nor da nor udalean, zeintzuk diren lan postuen funtzio nagusiak eta harremanetarako informazio garrantzitsua.</p>	Berdintasuna	25	Gida egin da
	<p>7. Langile guztiei “Komunikazio ez sexistaren gida banatu” Deskribapena: langileek komunikazio ez sexista erabiltzeko gida bat prestatu izan da, langile guztiek gida hau eskuragarri edukitzea da helburua, erabili ahal izateko.</p>	Berdintasuna	24	Gida banatu da
	<p>8. Berdintasun txostenak garatzea herritarrei bideratutako komunikazioetan. Deskribapena: Herritarrei bideratutako komunikazioak berdintasun arlotik pasatzea publikatu baino lehen, komunikazio inklusiboa ematen dela bermatzeko.</p>	Berdintasuna Komunikazioa	25-28	Burutu diren berdintasun-txosten kopurua

## PROGRAMA 2: UDALEKO PERTSONEN KUDEAKETA

HELBURUAK	EKINTZAK	ARDURADUNA	BETETZE URTEA	ADIERAZLEAK
<b>3. Emakumeak azpi-ordezkatuta dauden taldeetan parekidetasunera hurbildu.</b>	9. Brigadetan emakumeak dituzten beste udal batzuen esperientziak ezagutzea. Deskribapena: sindikatuen bitartez beste udal batzuen informazioa jaso berdintasun taldean aztertzeko.	Berdintasun taldea	24-28	5 esperientzia arrakastatsu identifikatu dira
	10. Sentsibilizazio ekintzak antolatzea herrian emakumeak erakartzeko maskulinizatutako lanetara. Deskribapena: brigadetako lanak egiten dituzten emakume erreferenteak bilatuko dira eta ikusarazteko ekintzak antolatuko dira.	Berdintasun taldea Komunikazioa	24-28	Sentsibilizazio ekimen bat antolatzea urtero
<b>4. Udaleko enplegu eskaintzan genero ikuspegia txertatu.</b>	11. Enplegu eskaintzetan genero ikuspegia txertatzeko berdintasun irizpideen kontrol-zerrenda egitea. Deskribapena: dokumentu bat idatzi berdintasun irizpideekin egiten den eskaintza bakoitzean erabiltzeko.	Berdintasuna	24-28	Kontrol-zerrendaren erabilera Aplikatzeko diten Berdintasun irizpideak
	12. Genero-eraginari buruzko azterketa egitea udal kontratazioen proba eta prozesuetan. Deskribapena: enplegu eskaintzetan datuak sexuz bereiztu jarraipena egiteko eta urte amaieran memorian txertatu eta baloratu.	Berdintasuna Idazkaritza	24-28	Urtero memoria bat egin
	13. Udal lan postuen funtzioak eta zereginak zehaztea genero ikuspegia kontutan izanda. Deskribapena: Aspaldiko lan postuen funtzioak berrikusi eta eguneratu.	Berdintasuna Berdintasun Taldea	28	Dokumentu bat egin

HELBURUAK	EKINTZAK	ARDURADUNA	BETETZE URTEA	ADIERAZLEAK
<b>5. Udaleko kanpo kontratazioetan genero ikuspegia txertatu.</b>	14. Hornitzaileen fitxa egitea, sexuaren arabera bereizitako informazioarekin. Deskribapena: fitxa horretan hurrengo informazioa sartuko da: berdintasun-planik duten; zuzendaritza-postuetan dauden gizon eta emakume guztiak; enpresa horretan lan egiten duten gizon eta emakume guztiak, jazarpenaren kontrako protokoloa dagoen...	Arlo ekonomikoa Berdintasuna	25	Hornitzaileen fitxa egin da berdintasun irizpideekin
	15. Kanpo kontratazioaren genero inpaktua aztertzea. Deskribapena: datuak sexuz jaso eta balorazioa eta proposamenak egin genero ikuspegitik.	Berdintasuna	25-28	Urtero memoria bat egin
<b>6. Errespetuzko lan ingurune osasuntsu eta arduratsua bultzatu.</b>	16. Sexu-jazarpeneko egoerak eta sexuagatiko jazarpeneko egoerak prebenitzeko, detektatzeko, jarduteko eta konpontzeko Protokoloa egitea, bai eta lan-ingurunean gertatzen diren indarkeria- eta diskriminazio-mota guztien aurrean ere. Deskribapena: Eredu ezberdinak eskuratu eta egokitu udaleko errealitatera. Protokoloen inguruko formakuntza emango zaio berdintasun taldeari.	Berdintasun taldea	25	Protokoloaren dokumentua
	17. Protokoloa langile guztiei zabaltzea, sentsibilizazioa, prebentzioa eta detekzioa bermatuz. Deskribapena: urtero sentsibilizazio saio bat antolatuko da langileekin.	Berdintasun taldea	25-28	Urtean behin
	18. Lan espazioen segurtasunari buruzko hausnarketa aldiro egitea udal langileekin eta gune ez seguruak identifikatzea. Deskribapena: bi urtero behin bilera bat antolatuko da beharrak eta proposamenak jasotzeko.	Berdintasun taldea	25-28	Bi urtero behin. Dokumentu bat egin

HELBURUAK	EKINTZAK	ARDURADUNA	BETETZE URTEA	ADIERAZLEAK
<b>7. Soldata gardentasuna bultzatu</b>	19. Urtero soldata erregistroa egin eta soldata arrakala aztertzea. Deskribapena: Diagnostikoa egiteko erabili den excela urtero eguneratu eta soldaten taulak sexuz bereiztu.	Berdintasuna	24-28	Soldata erregistroa egin urtero

**PROGRAMA 3: GENERO PERSPEKTIBA SUSTATZEA**

HELBURUAK	EKINTZAK	ARDURADUNA	BETETZE URTEA	ADIERAZLEAK
<b>8. Genero Ikuspegiaren inguruko formakuntza garatu</b>	20. Prestakuntza plan bat garatzea genero perspektibarekin. Deskribapena: Udal langileentzako prestakuntza plan bat sortu, genero perspektiba zeharkakotasunez landu ahal izateko.	Berdintasuna Idazkaritza	24-25	Prestakuntza plana
	21. Berdintasuna edo genero perspektibari buruzko formakuntza bat eskaini langileei urtero. Deskribapena: Formakuntza hainbat eratakoa izan daiteke, online zein aurrez aurrekoa, zeharkakoa zein berezitua...	Berdintasuna Berdintasun taldea	24-28	Urtean behin

## BEHARREZKO BITARTEKO ETA BALIABIDE MATERIALAK ETA GIZA BALIABIDEAK

---

Jarraian azalduko diren hiru alderdiak nahitaezkoak dira Berdintasun Plana egikaritu eta malgutasunez garatzeko, bai eta erakundeak berak denboran zehar esperimentatuko dituen egoera berriei erantzun egokia emateko ere.

Ildo horretan, gomendagarria da zenbait egitura eta berariazko baliabideak sortzea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana koordinatu eta gauzatzeko.

- Plana garatuko duen taldea eta parte hartzea sustatuko duena
- Aurrekontu propioa
- Lan programa

### LAN TALDE ERAGILEA

---

Lantalde edo Egitura Eragilearen helburua da Berdintasun Planaren baitan urtez urte zehaztuko diren helburuak eta ekintzak bultzatzea eta koordinatzea, eta horren jarraipena eta ebaluazioa egitea. Egitura bera iraunkorra izango da, baina bere osaketa, aldiz, denboraldi baterakoa, eta, modu horretan, kideak txandakatzeko aukera egongo da.

Planaren ardura alkatetzan kokatuko da eta planaren diseinurako sortutako taldea izango da garapenean lagunduko duena. Berdintasun teknikaria izango da taldea dinamizatuko duena. Talde hau urtean lau aldiz gutxienez batuko da planifikazio, jarraipen eta ebaluaketa aurrera eramateko.

### BALIABIDEAK

---

Plan hau gauzatzeko, baliabide ekonomikoak behar dira. Horrenbestez, diru-partida bat aurreikusi beharko da erakundearen urteko aurrekontuan.

### LAN PROGRAMA, JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA EGITEKO TRESNAK

---

Planaren baitan, nabarmentzekoa da lan-dokumentuak egitea eta berariazko tresnak sortzea aurreikusten dela, ekintzak inplementatzeko; era berean, horren jarraipena eta ebaluazioa egiteko tresnak ere aurreikusten dira. Ondorioz, lan-dokumentu hauek egingo dira:

- *Urteko Plan Operatiboa. Urtero, urtarrilean, berdintasuna kudeatzeko urteko plana egingo da, eta, horren baitan, jakingarri honek azalduko dira: Urteko helburuak eta ekintzak jasoko dituen plangintza; Jarraipen-mekanismoak; Ebaluazio-adierazleak; Aurrekontua.*
- *Urteko Ebaluazio Txostena. Bere helburua izango da planaren gauzatze-maila eta haren eragina azaltzea. Ebaluazio txosten honek urteko plan operatiboak biltzen dituen helburu eta ekintzek eduki duten asebetetze maila jorratuko du. Horretarako, ekintza bakoitzak jasotzen dituen adierazleak edukiko dira kontuan. Ekintza bakoitzean, hauen garapenaren edo garapen faltaren arrazoiak emango dira, eta ekintzaren asebetetzea hiru mailatan neurtuko da: Berdea, guztiz bete da; Horia, zati bat bete da eta Gorria, ez da bete.*

Gauzak horrela, urtarrilean plan operatibo bat gauzatuko da, eta urte horren bukaeran, abenduan, plan operatiboaren ebaluazio txostena burutuko da.

Talde eragilea urtarrilean batuko da, urteko Plan Operatiboa garatzeko. Aldi berean, Berdintasun sailetik ebaluazio txostenaren proposamena aurkeztuko da.

## DESADOSTASUNAK KONPONTZEKO PROZEDURA ETA ALDAKETA- PROZEDURA

---

Berdintasun-plan hau honako kasu hauetan aldatu ahal izango da, eta honetarako, 901/2020 lege dekretuak, bere 9. artikuluan zehazten dituen neurriak kontuan hartuko dira.

1. Aurreikusitako jarraipenaren eta ebaluazioaren emaitza aurreikusitako helburuak lortzen ari ez denean.
2. Plantilla, lan-metodoak, antolamendua edo ordainsari-sistemak nabarmen aldatzen dituen edozein gorabeheraren aurrean, hitzarmena ez aplikatzea eta lan-baldintzen funtsezko aldaketak edo hura egiteko oinarritzat hartu den egoeraren diagnostikoan aztertutako egoerak barne.
3. Neurri zehatzak berrikusi ahal izango dira, helburuak lortzeari dagokionez hautematen diren ondorioen arabera neurriren bat gehitu, birbideratu, hobetu, zuzendu, areagotu, arindu edo, are gehiago, aplikatzeari uzteko.
4. Agintari eskudun batek aldaketa hori egiteko beharra ezartzen duenean.

Berdintasun Planaren aplikazioan, jarraipenean, ebaluazioan edo aldizkako berrikuspenean desadostasunik sortuz gero, batzordean bertan konponduko dira.

## I. ERANSKINA. MARKO LEGALA.

---

Azken urteotan, lege eta arau juridiko ugari egin dira nazioartean, Europan, estatuan eta tokian tokiko mailan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eskubidea berariaz aitortzeko. Lege eta arau horiek, Administrazio Publikoen eremua barne hartzeaz gain, enpresa eta erakunde pribatuetan ere eragiten dute, eta, beraz, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plan hau testuinguru zabal honetan kokatzen da.

### NAZIOARTEKOA

---

- Nazio Batuen Gutuna (San Frantzisko, 1945eko ekainaren 26a).
- Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala. Nazio Batuen Erakundeak (NBE) onartu zuen, 1948ko abenduaren 10ean.
- Lanaren Nazioarteko Erakundearen 1958eko 111. Konbentzioa, lan eremuko diskriminazioaren ingurukoa.
- Emakumeen Kontrako Diskriminazio Mota Guztiak Desagerrarazteko Konbentzioa (Convention on the Elimination of all Forms of Discrimination Against Women: CEDAW). NBEk onartu zuen, 1979ko abenduaren 18an, New Yorken, eta Espainiako Estatuak berretsi, 1983ko abenduaren 16an.
- Emakumearen aurkako Bereizkeria-mota guztiak Ezabatzeko Konbentzioaren Protokolo Fakultatiboa, 1999. urtekoa. Espainiar estatuak 2001ko uztailearen 6an berretsi zuen.
- NBEren 48/104 Ebazpena, Emakumearen Kontrako Indarkeria Desagerrarazteari buruzkoa, NBEren Batzar Nagusiak onartua, Vienan, 1993ko abenduaren 20an.
- Giza Eskubideei buruzko Munduko Konferentziak (NBE).
- Emakumeei buruzko Munduko Konferentziak, zeinetan mundu mailako jardunbide proposamenak jasotzen baitira, nazioarteko beste hainbat tresnaren oinarrian agertzen direnak.
- 2010eko uztailean, NBEren Batzar Nagusiak NBE-Emakumeak atala sortu zuen, hau da, Genero Berdintasunaren eta Emakumeen Ahalduentzearen aldeko NBEren atal berezia.

### EUROPAKOA

---

- Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmena, 1950. Urtekoa. 14. artikulua sexuan oinarritutako diskriminazioa debekatzeko eta Giza Eskubideen Europako Auzitegia eratu zuen (Estrasburgo).
- Erromako Ituna (1957ko martxoaren 25ekoa). Honen bidez Europako Ekonomia Erkidegoa eratu zen. Testuaren 14. artikulua berdintasunaren eta sexuagatik bereizkeria

ezaren printzipioa aitatzten du. Beste alde batetik, 114. artikulua (lehengo 119. artikulua) emakumeen eta gizonen tratu-berdintasunaren printzipioa jasotzen du, bai eta lan beragatik edo balio bereko lana egiteagatik lansari bera hartzeko eskubidea ere.

- Maastrichteko Ituna (1992ko otsailaren 9a), zeinaren bidez Europar Batasuna (EB) eratu zen. Testuaren 6. artikulua dionez, berdintasunaren printzipioa ez da eragozpen izango estatu kideek ekintza positiboko neurriak hartzeko.
- Amsterdameko Ituna (EBko hamabost estatu kideetako atzerriko gaietarako ministroek sinatua, 1997ko urriaren 2an). Itun honen bidez, Maastrichteko Itunaren 6. artikulua (lehengo F artikulua) aldatu zen, giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak errespetatzeko printzipioa bermatzeko. Beste alde batetik, beste hainbat xedapen jaso zituen emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz.
- Europarentzat Konstituzio bat eratzen duen Ituna, Europako Kontseiluak onartua, Bruselan, 2004ko ekainaren 18an. Berdintasunari dagokionez, I. Zatiaren 1-2 artikulua EBren balioztat jotzen du emakumeen eta gizonen berdintasuna, eta 1-3 artikulua, berriz, EBk emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatuko duela ezartzen du. 2007ko Lisboako Ituna onartu zenetik loteslea da.
- Europar Batasunaren hainbat zuzentarau, besteak beste, 2006ko uztailaren 5eko 06/54 Zuzentzarua, emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren eta aukera-berdintasunaren printzipioak laneko gaietan aplikatzeari buruzkoa (aurreko zuzentzaruek esaten duena biltzen du).
- Europako Parlamentuaren Ebazpena, 2010eko ekainaren 17koa, atzeraldi ekonomikoaren eta finantza-krisiaren genero-dimentsioari buruzkoa.
- Europako Parlamentuaren Ebazpena, 2010eko irailaren 7koa, emakumeak zahartzen ari den gizartean duen zereginari buruzkoa.
- Europako Kontseiluaren Gizakien Trafikoen aurkako Hitzarmena (2005, Varsovia) eta emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko eta prebentziorako Hitzarmena (Istanbul, 2011).
- Europar Parlamentuko 2013ko otsailaren 6ko Ebazpena. Pekineko Egintza Plataformaren konpromisua berresten du, bai eta bertan jasotzen diren genero berdintasunaren inguruko ekintzak ere.
- Europako Kontseiluaren 2018-2023 Genero Berdintasunerako Estrategia.

### ESTATUKOA

---

- 1978ko Espainiako Konstituzioa. Testuaren 14. eta 9.2. artikulua.

- 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan-arriskuen aurkako prebentziorako.
- 39/1999 Legea, azaroaren 5koa, Langileen familia- eta lan-bizitza uztartzea sustatzekoa.
- 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzkoa. Lege organiko horrek erantzun orokorra eman nahi dio emakumeen aurkako indarkeriari, eta oinarria eskaini, era berean, gaia zehatzago garatuko duen araudiari.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 28koa, emakumeen eta gizonen berdintasun efektiboari buruzkoa.
- 2/2015 Errege Dekretu Legegilea, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testua eraberritzen duena.
- 8/2015 Errege Dekretu Legegilea, urriaren 30koa, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testua eraberritzen duena.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoen Kontratuen ingurukoa, Europako Parlamentuko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzendaritzak Espainiako ordenamendu juridikora barneratzen dituenak.
- 6/2019 Errege Dekretu-legea, lan esparruan emakumeen eta gizonen berdintasunerako presazko neurriena. Berdintasunaren inguruan zuzenean eragiten dituzten lege mailako zazpi arau aldatzen ditu, besteak beste, 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 28koa, emakumeen eta gizonen berdintasun efektiboari buruzkoa.
- 901/2020 Errege Dekretua, urriaren 13koa, berdintasun-planak eta horien erregistroa arautzen dituena eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretua, laneko hitzarmen eta akordio kolektiboak erregistratu eta gordailutzeari buruzkoa, aldatzen duena (2020/10/14ko BOE).
- 902/2020 Errege Dekretua, urriaren 13koa, emakumeen eta gizonen ordainsari-berdintasunari buruzkoa (2020/10/14ko BOE).

### EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKOA (EAE)

---

- Autonomia Estatutuaren 9.2. artikulua aipamen berezia egiten dio berdintasunari.
- 1988an, EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundea sortzen da Eusko Legebiltzarrean onartutako legearen bitartez.
- 1991n, EAEko Emakumeentzako Ekintza Positiboko I. Plana onartu zen, eta haren oinarrian garatu dira ondorengo Planak ere (gaur egun, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana).
- 2005eko otsailaren 18an, Eusko Legebiltzarrak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea onartu zuen.

- 11/2014 Dekretua, otsailaren 11koa, honako dekretu hau ordeztzen duena: 424/94 Dekretua, azaroaren 8koa, «Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Lankidetzaren Erakundea» aitortzea sortzeko, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun handiagoa eta berdintasun hori eragozten duten oztopoak kentzea ahalbidetzen eta sustatzen duten jarduerak egiten dituzten erakunde eta entitate pribatuei. 2022ko ekainean, guztira 133 enpresa eta erakundeak zuten bereizgarri hori EAEn.
- 3/2012 Legea, otsailaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea eta EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeko Legea aldatzen dituena.
- 2015ean, NBEk EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundea saritu zuen (Nazio Batuen Zerbitzu Publikoen Lehen Saria eman zion, Genero Ikuspegiaren Sustapenaren modalitatean).
- 2016ko apirilean, Eusko Jaurlaritzak 3/2016 Legea onartu zuen, zenbait klausula sozial kontratazio publikoan sartzeko.
- 2018-2020 Estrategia eta Akziorako Plan Operatiboa, Euskadin soldata arraila murrizteko. 2022/2025eko II. Ekintza Plana.
- 42/2019 Ebazpena, apirilaren 9koa, Eusko Jaurlaritzarena, Kontratazio publikoan emakumeen eta gizonen ordainsari-berdintasunerako klausulak eta soldata-arrakalaren aurkako neurriak txertatzeko jarraibidea onartzen duena.
- 1/2022 Legea, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik gabeko Bizitzetarako Legea onartzen duena, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea aldatzen duena.
- Berdintasunerako foru-araudiak eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako udal-ordenantzak.